



Errauskailuaren kontrako oihua.- Jende mordera batu zen larunbatean erraustegiaren kontrako manifestazioan. Lasarte-Oriako eta inguruko herrietako pertsonak egin zuten bat Aire Garbia plataformak deitutako mobilizazioarekin. Salatu dutenez, Zubietan eraikiko den errausketa plantak osasunerako kaltegarriak diren furano, metal astun eta dioxinak sortuko ditu. Beste herri batzuetan egin bezala, proiektua atzera botatzea eskatu dute. Hondakinak kudeatzeko modu garbiago eta merkeagoak daudela argudiatu dute, eta horiek baliatzeko eskatu diote Gipuzkoako Foru Aldundiari. Amaierako ekitaldian, Okendo plazan, azpimarratu zuten erraustegia gelditu daitekeela, eta Zubietan egin nahi dutenek "pare-parean" edukiko dituztela Aire Garbia plataforma eta Lasarte-Oriako herritar ugari. Herritik kilometro eta erdira egitearen kontra azaldu zen Udal Batzarraren gehiengoa. EH Bildu eta Lasarte-Oriak Ahal Du errausketaren aurka agertu dira, PSE ez dago ados kokalekuarekin eta EAJ eta PP, berriz, alde dira. Azken hauen ustez, kalteak puztu egiten dituzte.

3 ELKARTEAK

Xirimiri elkartearen omenduko dute

Egitarau berezia prestatu dute larunbatean Xirimiri elkartearen omenaldia egiteko. Besteak beste, argazki erakusketa egingo dute Xirimiriren inguruan egin diren ekimenak gogoratzeko. Egun osoan zehar umeentzako jolasak izango dira, Porrotxen bisita barne. Bazkalosterako mus txapelketa eta karaokea antolatu dituzte. Taberna irekita egongo da arratsaldean.



4 MUSIKA

Santa Zezilia dela eta, hainbat ekitaldi

Atzo izan zen Santa Zezilia eguna, Musikarien Zaindaria, alegia. Omentzeko zenbait emanaldi egin ziren. Donostiako Ibaeta Abesbatzak kontzertua eman zuen Brigitarren komentuko kaperan, eta Alboka abesbatzak Arantzazuko Ama elizako meza girotu zuen. Udal Musika Eskolako ikasleak, aldiz, Atsobakarreko Egoitzan arituko dira 30ean.

5 BERDINTASUNA

Beldur Barik sariak banatu dituzte

2015eko Lasarte-Oriako Beldur Barik lehiaketako sari banaketa ostiralean egin zuten. Helburua indarkeria sexistaren aurkako jarrerak sustatzea da. 12 eta 17 urtekoen kategorian Noa Carreterok, Amaia Hartok eta Asier Olmosek irabazi dute, "XXI. Mendean" lanari esker. Adin nagusikoan sailean, berriz, Ane Galardiren "Aurrera" bideoak eraman du saria.

Azaroaren 27an, ostirala, ez da Txintxarri argitaratuko. Herriko informazio guztia txintxarri.eus atarian

ALCAR VENTANAS
KOLABORATZAILE OFIZIALA
"Ventanas ALCAR" SARIAK

SAN SILBESTRE LASARTE ORIA
1go edizioa
#SSLO **31** ABENDUA

+INFO:
facebook.com/SanSilvestreLasarteOria

Antolatzaileak
LASARTE-ORIA
TRATU ON BAI
UN BUEN TRATO

Lasarte Oriako biztanleek antolatuta

BIZIBERRITZEN

Herriko komertzioen biziberritzea hedatzen

Lau argazkigintza negoziok Anaiak jantzi denda zenean iragarriko dituzte euren produktuak

Anaiak jantzi denda zenak bizia hartu du berriro ere, herriko beste zenbait komertzioek euren produktuak jarri baitituzte erakusleihoetan. Lau argazkigintza komertzioek hartu dituzte oraindik libre zeuden biak.

Lasarte-Oria Biziberritzen egitasmoa gero eta hedatuago dago herrian. Jardunean dauden komertzioei produktuak iragartzeko espazio osagarri bat eskaintzean datza Aterpea merkatarien elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak martxan jarritako egitasmoak. Horretarako, atea itxita dauzkaten dendengana jo eta biziberritzeko aukera hori planteatzen diete.

Proiektuan parte hartu du Anaiak jantzi denda zenak, esate baterako. Egitasmoaren bigarren fase honetan herriko lau argazkigintza negoziok (Ezti-photo, Artsier, Xaralphoto eta Foto Martinez) utzi die euren produktuak iragartzeko oraindik libre zituzten bi erakusleihoetan.

Anaiak jantzi dendak hiru-garren erakuslehoi bat badau-

ka: Noaoa bidaiak ari da hori erabiltzen. Aterpeak eta Udalak proiektuaren lehenengo fasean eman zioten dendari espazio hori.

Hamabi komertzio

Berriki batu diren lau argazkigintza komertzioekin, hamabi dira denera egitasmoan parte hartzen ari diren dendak.

Lehenengo fasean biziberritu zuten orain dela gutxira arte Otaegi altzariak izandako lokala. Egun loreak, leihoak eta arropa ikusi daitezke erakuslehoetan: Alcar leihoak, Ormazabal loradenda, Alba moda, Ormazabal loradenda eta Olmi mertzeriak hartu dute espazio hori euren produktuak iragartzeko.

Txuri Urdin taberna Kale Nagusian zegoen garai batean. Orain Santana Informatikak



Argazkigintza negozioetako eta Anaiak zenaren jabeek eta udal ordezkariak azaldu zuten Biziberritzen egitasmoaren 2. fasea.

erabiltzen du erakuslehoi hori ordenagailu, sagu, teklatu eta antzekoak eskaintzeko. Abreu Bazarrak ere hartu du parte egitasmoan, Ola Klean irekita egon zen arrandegiaren lokala erloju, telefono eta antzeko aparailu elektronikoz betez.

"Tamalez itxita dauden komertzioei eta aktibo daudenei bultzadaxoa ematea bilatzen du egitasmoak, herriko komertzioaren irudia are biziagoa izatea", aipatu zuen Jesus Zaballos alkateak proiektuaren aurkezpenean.

"Nahiago genuke herriko komertzio denak irekita egongo balira, baina hori ez denez horrela, Lasarte-Oriako dendei bizia emango die egitasmoak; hori uste dugu guk", adierazi zuen Aterpeko lehendakari Ramon Ormazabalek.



Independentziaren oztopoak

Ostegunean, BAI ekimenak antolatutako topaketen bigarren hitzaldia izan zen. Honetan Xabier Barandiaran soziologoak abertzaletasunak mende honetan duen erronkari buruz hitz egin zuen, independentzia.

Barandiaranek abertzale bezala independentziaren

alde dituen arazoak azaldu zituen lehenik. Baina bere ustez egun hau gauzatzeko dauden oztopo eta zailtasunak ere azaleratu zituen.

Villa Mirentxura hurbildu ziren herritarrek haien iritzia emateko tartea ere izan zuten, hitzaldiaren osteko solasaldian.

Indarkeria, filmeetan aztergai

Elkarbizi egitasmoak filmeetan indarkeriak dituen errepresentazioak aztertu zituen larunbatean.

"Indarkeriaren kontaera filmikoak" izeneko tailerra antolatu zuten Ganbo Iturri elkartearen egoitzan. Hogei pertsona inguru gerturatu ziren ikastarora.

Iraganeko indarkeria filmeetan nola azaltzen den aztertu zuten. Batetik, egiten diren kontakizunak zein neurritarainoko balioa duten jakiteko. Eta bestetik, iragana hobeto ezagutze aldera egin ditzaketen ekarpenak mahai gainean jarri zituzten.

Azken urtetan egindako



Ganbo Iturri kultur elkarteak antolatutako jardunaldia izan zen.


hainbat film aztertu zituzten. Besteak beste, 'Asier Eta Biok' 'Bakerantza', 'Reconciliación', 'El Reencuentro' eta 'El

Valor de la Autocrítica'.

Euskal Filmotekako arduradun izandako Mikel Arregik eman du ikastarora.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagirre, Martin Vicioso,
Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

ELKARTEAK



Argazki zaharrak ikusteko parada egongo da erakusketan. 14. urteurrenean egin ziren herri kiroleko hau, adibidez

Xirimiri elkarteari omenaldia larunbatean

Goiz eta arratsaldean ekintzak Xirimiri omentzeko

Orain arteko ibilbidea omendu eta etorkizunera begira itxaropentsu begiratu. Hori da azaroaren 28an, larunbatean, Xirimiri elkartean egingo duten omenaldiaren helburua. Egun osoan zehar ekintzak egingo dituzte haur, gazte eta helduentzat.

TXINTXARRI

Bi urte igaro dira Xirimiri elkarteak bere 25. urteurrena ospatu zuenetik. Oraingoan ere atzera begirako omenaldia antolatu dute. 27 urte hauetan elkartean bizitakoa gogoratu eta etorkizunari itxaropentsu ekitea da antolatzaileen helburua.

Egitaraua

Goizeko 11:00etan hasiko dira ekintzak Aralar plazan. Umeentzako tailerrak eta

jolasak egingo dituzte. 12:30ean argazki erakusketa izango da elkartean. Urte hauetan Xirimiriren inguruan egin diren ekimenak gogoratzeko aukera egongo da, beraz.

14:00etan bazkalduko dute umeei, eta helduei, berriz, 14:30ean. Tikitak Ilargi eta Artizar tabernetan eskuratu ahal izango dira. Umeena 5 eurotan eta helduena 10 eurotan langabe-tuek eta 15 eurotan langileek.

Bazkaldu ostean, taberna

irekiko da eta mus txapelketari ekingo zaio. Halaber, abeslari trebeek euren gaitasuna erakusteko aukera edukiko dute 'Xirimiri Kantari' karaokean.

Umeei ere edukiko dute jolaserako aukera arratsaldean. 17:00etan Porrotxen bisita jasoko dute Aralar plazan.

Afari-merienda, ostegunean

Omenaldiaren aurretik beste hitzordu bat egongo da Xirimiri.

Udara honetan Kuban izan diren lasarteoritar batzuek argazki erakusketa prestatu eta euren esperientzia partekatuko dute bertaritutakoekin. Ondoren, afari-merienda egingo dute.

UDALA

Talde eta elkarten erroldaren eguneraketa

Herriko talde eta elkarten errolda eguneratzari ekin dio Lasarte-Oriako Udalak. Pertsona arduradunen izenak, telefonoak eta beste hainbat datu zaharkituta daude.

Udalak jakinarazi duenez, haiek jarriko dira harremanetan elkarteekin, posta arruntaz eta elektronikoz.

Hala ere, erroldatu gabeko talde berrien datuak lortu ahal izateko, partaidetza teknikariarekin hitz egiteko deia luzatu dute. Telefonoz, 943 376 055 zenbakian, 1906 luzapena eskatuz edo posta elektronikoz, partehartzea@lasarte-oria.eus.

KONPONKETAK

Sasoetako ikastetxeko fatxada konpontzeko obra esleituta

Lasarte-Oriako Construcciones Loidi S.A. enpresa arduratuko da obra burutzeaz. Fatxadan material batzuk erori eta gero, konponketa lehenbailehen egin behar dela azaldu du Udalak. Izan ere, gune batean bereziki arrikutsua izan liteke. Guztira 10.714 euroko kostua izango du.

Bestalde, Udaletxe berrian eta Andre Joakina-Enean kristal garbitzeko segurtasun sokak ezarriko dira. Astigarragako Sector Vertical S.L. arduratuko da.



HITZALDIA

Zuzenbide Zibilar buruzko hitzaldiak harrera ona izan zuen

Ostegunean, herritar ugari hurbildu zen Manuel Lekuona kultur etxeako hitzaldi aretora. Zuzenbide Zibileko lege berriari buruzko hitzaldiak ikusmira handia zortu zuen herritarrengan.

Udalak antolatutako ekimen honetan, Mikel Martinez notarioak urrian indarrean sartu zen 5/2015 Legeak testamentu eta senipartetan duen eragina aztertu zuen.

Ezkondutako eta izatezko bikoteek edo familiako kideek dituzten eskubideak azaldu zituen eta besteak beste, hainbat aholku eskaini zizkien testamentuetako hartzaileei senideek zorak uzten badituzte.

BERTSOLARITZA

Finalerako sarrerak interneten soilik

Abenduaren 19an Ilunben jokatu den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalerako sarrerak saltokietatik erretiratu zituzten ostiralean. Hau da, Jalgi kafe-antokian ez dago sarrerarik dagoeneko.

Hemendik finalera artean, Durangoko azokan eta www.bertsosarrerak.eus webgunean egongo dira salgai sarrerak. Tolosa eta Eibarreko finalaurreetako txartelak ere eskuratu daitezke bertan.

TAILERRA

HH2-ko haurrentzako tailer berria

Azaro hasierako ikastaroaren ostean, 2013. urtean jaiotako haurrei zuzendutako ikastaro berri bat antolatzea erabaki zuten Amaraun Klubeko lagunek.

Ikastaroa honetan eskulanak, masajeak eta eskujolosen bitartez gorputza ezagutu eta sentitzezko aukera dute haurrek. Tailerra, azaroaren 30ean, astelehena, 17:15etik 18:15era izango da Zumaburu eskolako psikomotritate gelan eta txikiak heldu baten laguntza beharko dute saion zehar.

Honetan parte hartzeko alde aurretik izena eman behar da, Ttakuneko bulegoan, 943 371 448 zenbakian edo aisia@ttakun.com helbide elektronikoz.

XXIII. Jaiotzen Lehiaketa aurkeztu dute

Danok Kide elkarteak urtero antolatzen duen Jaiotzen Lehiaketa martxan da, eguberrietarako hilabete falta denean.

Oinarriak

Neurriz 80x60 zentimetrokoak izango dira gehienek eta egitura eta piezak ezingo dira hondo sendokoak izan. Taldeka edota banaka lehiatu ahal da.

Gutun-azal batean parte-hartzaileen datuak zehaztu beharko dira. Lanak Danok Kide elkartean entregatu beharko dira abenduaren 18an eta 19an

Saridunak

Lan guztiak San Pedro elizan



2014ko 14 eta 17 urte bitarteko kategoriako jaiotza saritua

ikusitakoak izango dira, eta irabazleak Muebles Azpeitia denda.

Sariak 40 eta 120 euro artekoak izango dira. Adina-

ren arabera lau kategoriatan parte hartu ahal izango da. Sari banaketa abenduaren 27an egingo da, eguerdiko 12:00etan.



Alboka Abesbatzak Arantzazuko Ama elizako meza girotu zuen.



Donostiako Ibaeta Abesbatzak kontzertua eman zuen Brigitarren komentuko kaperan Santa Zezilia egunez.



Musika eskolako gaztetxoek urteko lehen kontzertua eskaini zuten ostegunean.

Musikarien eguna ospatzen

Herriko musikariek ez zuten huts egin

Atzo, Santa Zezilia musikarien zaindariaren eguna izan zen Hori dela eta, Udal Musika eskolak, Alboka abesbatzak eta Donostiako Ibaeta abesbatzak emanaldi bereziak ospatu zituzten.

TXINTXARRI

Musika eta ahotsak izan ziren atzo, Santa Zezilia egunean protagonista Lasarte-oriako bi elizetan.

Donostiako Ibaeta abesbatzeko kideek doinu euskaldun ez bete zuten Ama Brigitarren komentuko kaperan.

Mezan esate baterako, Madinaren 'Gure Aita' hunkigarria eskaini zuten. Meza osteko emanaldian aldiz, doinu ezagunak izan ziren nagusi 'Ama', 'Xalbadarren heriotzean' edo 'Xarmangarria zira'.

Alboka abesbatza

Lasarte-Oriako Alboka Abesbatzak ere egun berezi hau ospatuko zuen.

Ohitura legez, Arantzazuko Amaren elizako meza girotu zuen abesbatzak. Molfinoren 'O sacrum convivium', Jenkensen 'Ave Maria' edo 'Laudate nomen domini' doinuak abestu zituen.

Ostean, kide eta lagunekin 'El Jardin' jatorrian bildu eta bazkari ederraz gozatu ahal izan zuten.

Musika eskola

Lasarte-Oriako Udal Musika eskolako lagunak izan ziren-

lehenak zaindariaren eguna ospatzen.

Ostegunean, ikasleek hila-bete hauetan zehar ikasitako erakutsi ahal izan zuten urteko lehen kontzertuan.

Manuel Lekuona kultur etxean egin zen emanaldian, bakarka edo taldean musikari gazteek doinu klasikoak eta modernoak eskaini zituzten, hala nola, 'Aitorren hizkuntz zaharra', 'Himno de la Alegria' edo David Guettaren 'Titanium'.

Flauta, gitarra, trikitixa, pandero, txistu... instrumentu desberdinak izan ziren artetoko oholtza gainean.

Atsobakarren emanaldia

Honetaz gain, Udal Musika Eskolako trikitilari eta pandero joleak, azaroaren 30ean, 17:30ean, Atsobakarreko egoitzan emanaldi berezia eskainiko dute.

'Moby Dick' antzezlanarekin gozatu dute gaztetxoek

Bale ehizan aritzeko aukera eduki zuten etxeko txikiek larunbatean. 'Moby Dick' antzezlanaren eskaini zuen Gorakada konpainiak Manuel Lekuona kultur etxean.

Herman Melville autorearen liburuan oinarrituta, Ahab kapitainaren abenturak antzeztu zituzten. Bale zuriaren bila pairatzen duen obsesio progresiboa ederki irudikatu dute, umeentzako ulergarria den era komikoan.

Dena den, ez da umeentzat soilik pentsatua den obra. Gurasoek eta bertaratutako guztiek arratsalde atsegina igaro zuten.

Gorakada konpainia

25 urte baino gehiagoko



Gorakada konpainiaren eskutik etorri zen 'Moby Dick' gurera

esperientza du taulagainean Gorakada konpainiak. 'Moby Dick' antzezlanaz gain, 'Aladdin', 'Munduaren Itzulia' edo 'Printzea eta Ahatea' obrak

errepresentatu izan dituzte.

Larunbateko emanaldiaren zuzendaria Jose Carlos Garcia izan zen. Aktoreak, berriz, Aritza Rodriguez, Jose Cruz

Gurrutxaga eta Eriz Alberdi. Egokitzailea Julio Salvatierrak egin du, eta musika Fran Lasueneren eta Unai Lasoren eskutik entzun genuen.

Zartzuela digitalean

Antzerkiaz gain, Luisa Fernanda zartzuela emanaldiaz gozatzeko parada izan zen larunbatean pantaila digitalean.

Musika, jatorriz, Federico Moreno Torroba konpositorearena da eta libretoa Guillermo Fernandez-Shaw Iturralde eta Federico Romero Sarachagarena.

1868ko Madril eta Caceresen dago girotua. Maitasun istorioa da. Luisa Fernanda gaztearen, Javier militarren eta Vidal Hernando laborariaren arteko amodio-triangelua da ardatza. Orduko garai politiko aldakorrean, sentimendu eta arrazoien arteko talka islatzen du.

Beldur Barik sariak, banatuta

Berdintasuna sustatzea duen bideo lehiaketak Lasarte-Oriako fasea amaitu du

Indarkeria sexistaren aurrean ez isiltzea eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasun egoeraren aurrean ekitea. Horrela defini genezake Beldur Barik jarrera; bideo lehiaketak gazteen artean sustatu nahi duena, alegia. Ostiralean egin zuten sari banaketa Manuel Lekuona kultur etxean.

Euskal Autonomia Erkidegoan egiten den bideo lehiaketa da Beldur Barik. Berdintasunaren eta feminismoaren inguruko gaiak jorratu dituzte.

Helburua "errespetuan, askatasunean, autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeriaren bazterketa irmoan" oinarritutako jarrerak sustatzea da.

Lehiaketan bideo formatuan egina dagoen edozein arte adierazpen aurkez zitekeen. Izan ere, antolatzaileek azpimarratu dutenez mezuari kalitate teknikoari baino garrantzia handiagoa eman diote.

12 eta 30 urte arteko gazteentzat bideratutako lehiaketa

ta da Beldur Barik. Bi kategoriatan banatuta: 18 urtetik beherakoak batean eta adin nagusikoak bestean.

Saridunak

Kategoria bakoitzeko lan bakarra aurkeztu dute.

12 eta 17 urte artekoen sailean Noa Carreteroren, Amaia Hartoren eta Asier Olmosen "XXI. Mendean" lanak irabazi du. Jorratu dituzten gaien artean daude besteak beste, kirolean emakumeak eta gizonezkoak jasotzen duten trataera desorekatua, emakumearen gorputzak jasaten duen indarkeria eta ligatzeko garaian egiten diren erasoak.

18 urtetik gorako saria



Aurtengo bi kategorietako irabazleak alkate Jesus Maria Zaballosekin

Ane Galardirentzat izan da, "Aurrera" bideoari esker. Izenburuak dioten moduan, iragana atzean utzi eta etorkizunari aurre egiteari buruzko gogoeta egin du bere lanean.

Herri saria

Kategoria bakoitzean bideo

irabazleak 300 euro irabazi ditu. Lasarte-Oriako Emakumeen Zentroak kudeatu du lehiaketa.

Herri saria ere emango diote sarean boto gehien lortzen dituzten lanei. Larunbatean ireki zen epea, eta Azaroaren 25a arte bozkatu

ahalko da.

Sari banaketa 28an egingo dute Amurrión, Beldur Barik topaketan. 500 eta 300 euroko sariak banatuko dira irabazleen artean. Izena ematen dutenentzat, antolakuntzak dohako autobusak jarriko ditu Lasarte-Oriatik.

ERAIKIN BERRIA SALMENTAN, SOILIK
2 ETA 3 LOGELATAKO 14 ETXEBIZITZA. SANTA BARBARA
ALDERA BISTA EZIN HOBEAK. ZONA BERDEAZ INGURATUTA.

189.000€

+ BEZ-TIK AURRERA

DONOSTITIK
SEI MINUTUTAN!

residencial
zabaleta (berri)
bizigunea

INFORMAZIOA



943 368 942

www.zabaletaberri.es



%80A SALDUTA 1GO FASEAN

Eraiki aurreko merkaturatze sustapena. Informazio hau alda daiteke arrazoik tekniko edo komertzialengatik. Interesdunen eskura dago gure bulegoetan iragarki honetan ez dagoen gainerako informazio guztia, 515/89 Errege Dekretuak, apirilaren 21ekoak, eskatzen duena.

Kutxabankek finantzatuta



PILOTA.-

Intza KEko seniorrak Lehenengo mailara

Artetxe eta Elola 22-12 gailendu dira Asteasuko Usarrabi Pilotalekuan

Primerako partidua egin eta gero, Intza KEko pilotariek Gipuzkoako seniorren Lehenengo mailarako txartela lortu dute. Artetxe eta Elola sendo aritu ziren neurketa osoan zehar, eta erosotasunez lortu zuten euren helburua. Bigarren mailako txapela Azkoitiaren aurka lehiatuko beharko dute orain.

MARTIN VICIOSO

Pozik atera ziren lasarteoriarrak Usarrabi pilotalekutik ostiralean. 2016an Lehenengo mailan aritzeko eskubidea zegoen jokoan, eta Intza KEko pilotariek ez zuten huts egin. 22-12 irabazi zieten Asteasuko Atzapar klubeko Urbietari eta Iruretagoyenari.

Oreka lehen tantoetan

Ez lasarteoriarrak ezta astasuarrek ere ez zuten partidua hasieratik menperatu. Pilotalekura eta materialera egokitzeko denbora behar izan zuten bi bikoteek, nahiz eta Artetxek eta Elolak bi tantoko aldeari eutsi zioten norgehiagokaren lehen zatian.

Atzapar taldeko pilotariek partiduari buelta ematen saiatu ziren eta markagailuan aurretik jartzea lortu zuten. Hala ere, denbora gutxiz gozatu ahal

izan zuten abantailaz.

Sendo eta eroso

Zortzinakotik aurrera, haizea alde eduki zuten Intza KEko pilotariek. Elola nagusitu zen atzean, eta astesuarrek ez zuten erantzunik aurkitu. Artetxe ere gehiago askatu zen, txokoa eginiko dejadekin.

15 eta 9ko aldea lortu, eta ez zirudien partidua alde egingo zienik. Asteasuarrek pilota biziagoarekin saiatu ziren, baina ez zen nahikoa izan.

Apaingarri gehiegirik gabeko garaipena izan zen. Sendo aritu zen bikote lasarteoriarra partidu osoan zehar, eta hori izan zen gakoa.

Finala, Zegaman

Txapelketari azken zertzelada ematea falta zaie oraindik. Igoera finkatuta duten arren, Azkoitiaren aurka lehiatu beharko dira Bigarren mailako



Mikel Elola eta Jon Pello Artetxe pozik garaipena erdietsi ostean.

txapela irabazi ahal izateko.

Fase erregularrean, Azkoitiko Gurea Pilotalekuan Artetxek eta Elolak 22-18 galdu zuten Unanueren eta Iparragirrerren kontra. Oraingoan, berriz, Zegaman ikusiko dute elkar.

Atzaparko pilotariak ostiralean galdu izanagatik ere, Lehen mailan arituko dira hurrengo urtean. Izan ere, beste finalerdian bergararrak eurek baino tanto gutxiago egin zituzten.



Sendotasuna izan zen garaipenaren gakoa.

ERRUGBIA.-

Lavie Gastrobar, Beltzak eskolaren babesle berria

Aldaketak egin ditu ekipazioan herriko Beltzak errugbi eskolak. Babesle berria edukiko dute aurtengo denboraldian, atek ireki berri dituen Lavie gastrobar taberna-jate-txea hain zuzen.

14, 12 eta 10 urtez azpiko jokalariek gazteak hasten dira errugbian murgiltzen eskola horretan. Hemendik aurrera, horri buruz hitz egitean, izen berria esatera ohitu beharko dute lasarteoriarrak: La vie

Gastrobar Beltzak Errugbi eskola. Gipuzkoako taldearekin entrenatu zuten eskolako zenbait jokalariek larunbatean, Asti zelaian (Zarautzen). 14 urtez azpiko kategorian aritu ziren Unai Pelaez, Mikel Ibisate, Gabi Gavilan, Paola Vega eta Jokin Beloki.

Bestalde, Beltzak eskolako kideek gogorazten dute erosi daitezkeela jada gabonetako saskiko errifak herriko hainbat tabernatan.



TRIAL.-

Toni Bou munduko txapelduna Michelinen

Trialeko munduko txapelduna da egun Toni Bou (Bartzelona, 1986). Hark irabazi ditu munduko txapelketa gehien, 18 denera (9 aire librean eta 9 indoor). Ostiralean ez zuen konpetitu, baina erakustaldi ederra eman zuen Lasarte-Oriako Michelin fabrikako zirkuitu inprobisatua, bertako langile eta zuzendaritzako kideen aurrean.

Enbor eta edukiontzia batzuekin prestatu zuten zirkuitua Michelingo kideek. Bouk motorrekin duen trebezia erakutsi zuen langile, zuzendaritzako kide eta hedabideen txalo artean. Era guztietako akrobaziak burutu zituen Herrialde Katalanetako gidari abilak, ikusleak txundituta utziz. Michelingo 'Bibendum' maskota ezagunaren gainetik jauzi egitera ere ausartu zen.

Motorretik jaistean gidariak eskerrak eman zizkien fabrikako kideei, bertara bisita egiteko aukera emateagatik.



Era guztietako akrobaziak egin zituen Toni Bouk ostiralean Michelin fabrikaren zirkuitu inprobisatuan.

Era berean, egunero-egunero bertan egiten den lana gorai-patu zuen munduko txapeldunak. Erakustaldiaren ostean, fabrikako kideek familia argazki erraldoia atera zuten gidariarekin batera. Gero, banan-banan edo taldetxotan ere beste hainbat argazki atera dituzte Bourekin.

Ez da nolana hain kataluniarren kurrikuluma: 29 urte besterik ez ditu, eta munduko

Trial txapelketa 18 aldiz irabazi du dagoeneko; gidariaren artean hark ditu titulu gehien historia osoan.

2007tik gaurdaino jarraian irabazi ditu munduko txapelketa horiek denak. Dena den, haren palmaresa are zabalgoga da oraindik: Espainiako 11 txapelketa, Nazioen 15 eta Europako bat erdietsi ditu. Era berean, Kirol Merituen urrezko domina eman zioten 2013an.

Agenda

Asteazkena, 17:30ean, Okendo plaza



Emakumeenganako indarkeriaren aurka

Azaroaren 25ean, asteazkena, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna dugu. Lasarte-Oriako Udalak jarrera hau gaitzesteko ekimena antolatu du egunean bertan Okendo plazan. Arratsaldeko 17:30ean plazara hurbiltzen diren herritar guztiek puzgarri moreabat jasoko dute. Ostein, denen artean Emakumeenganako indarkeriaren aurkako ikur den puntu erraldoia osatuko da. Udalak herritarrek gonbidatzen ditu ekitaldi honetan eta egitarauko besteetan parte hartzera.

Xirimiri omenaldia

XIRIMIRI ELKARTEA ETA ARALAR PLAZA

Larunbata
11:00etan, jolasak eta tailerrak
12:30ean, Xirimiriko argazki erakusketa
14:00etan, Ume bazkaria
14:30ean, Helduen bazkaria
Ostein, Taberna irekiera. umeentzako tailerrak, mus txapelketa eta Xiri kantari.
17:00etan, Porrotxekin bihurrikeriak.

Musika

ELURTZA TABERNA
Larunbata, 18:00etan
Reggae Fever Irratsaioaren festaren ekintzen barruan, Ritxi Skatalite eta Charlie Mondadientes-en saioa.

ELEBELTZ TOPAGUNEA
Larunbata, 22:00etan
Reggae Fever Irratsaioaren festa. Bilbotik Bilbomatiks, Tafallatik Zartako-K eta Donostiatik Q aren't onesen kontzertuak. Ondoren, binilo sesioa Sir Gorka eta Naken Selektoeren eskutik. Sarrera 5 euro.

ATSOBAKAR EGOITZA
Astelehena 30, 17:30ean
Musika Eskolako Trikitilariak Atsobakaren emanalditxo bat eskainiko dute.

Zinea
MANUEL LEKUONA
Igandea, 17:00etan
"Capitan dientes de sable" filma hurren zinema atalean. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA
Igandea, 19:30ean
"Marte (The Marthian)" filma helduen zine saioan. Sarrera 5,50 euro.

Lasarte-Oria Genero indarkeriaren aurkako eguna

HAUR LIBURUTEGIA
Asteazkena, 18:00etan
Ipuin kontalari saioa Pello Añorgarekin haur liburutegian. Sarrera doan da. 4 eta 5 urtetako haurrei zuzendutako saioa.

MANUEL LEKUONA
Ostirala, 19:30ean
"9 Mosaicos infinitos" antzerkia eskainiko du Makelur taldeak. Sarrera 3 euro.

ANTONIO MERCERO GUNEA
Osteguna 26ra arte
"Diruaren sexu ezkutua" erakusketa izan-

go da ikusgai. Honetan, emakumeen ekonomiaren alderdi sinbolikoa erakusten da, diru zorroak. Haurralde fundazioa eta Malen Etxea elkartearen eskutik.

Xiri afari-merienda
XIRIMIRI ELKARTEA
Osteguna, 19:30ean
Xirimirin solasaldia egingo da Kubaren inguruan. Afari-merienda izango da.

BAI II. Topaketak
VILLA MIRENTXUN
Osteguna, 18:30ean
BAI II. Topaketen barruan "Hondakinen kudeaketa Gipuzkoa" mintegia eskainiko du Javier Ansorenak.

Antzerkia
MANUEL LEKUONA
Osteguna, 18:30ean
Danok Kideren eskutik Donostiako Teatro Estudiok "Una comedia española" lana antzetzuko du. Sarrera doan. Donostiako antzerki taldeak 50. urteurrena ospatzen du aurten.

Jaialdia
MANUEL LEKUONA
Larunbata, 18:00etan
Oaintxe in deu! txarangak kaleak girotu ostein, 18:30ean, Jalgune elkarteak nazioarteko urritasun eguna ospatzeko "Elkar sentitu ta emozioak handitu" jaialdia egingo du. Semblante Rociero koruaren laguntza ere izango dute. Sarrera doan.

Herritarren txokoa

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza
Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren omenezko meza ospatuko da, azaroaren 24an, asteartea, arratsaldeko 17:00etan.

hurbilduz Hipodromo etorbidea 10. Bulego ordutegia, 09:30etik 16:30era.

Odol-ateratzea
Hilabeteko azken astelehenean uazaroaren 30ean, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.
Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Lasartearra elkarteak loteria
Lasartearra elkarteak jakinarazi du aurtengo gabonetako loteria, 57.898 zenbakia, bazkideen eskura dagoela.

Greziar irletara bidia
Noaia Bidaiak hurrengo urterako bigarren irteera prest du, Greziar irletara kruzeroa astebete zerbitzu guztiak barne.
Irailak 12an irteera eta irailak 19 an buelta. Lasarte-Oriatik autobuses Loiuo aireportura eta bertan hegazkinez.
Informazio gehiago 943 373 613, info@noaobidaiak.com edo ofizinaraz

Hemeroteka

Duela 1190 ale



Lasarte-Oriako Odol emileen elkarteak larunbatean, azaroaren 21ean 43 urte bete zituen. Baina 1997ko azaroan, 25 urteurrena ospatu zuen. Hori zela eta, Txintxarri erreportaje berezia egin zion elkarteari.
Honetan, Joxe Usabiaga herriko taldearen arduradunarekin solasean egin zuten, baita odola ematen duten herritar eta orain elkarteak lehendakaria den Xabin Urcelayekin ere. Joxe Usabiagak elkartearen sorrera azaldu zuen. Berak Miguel Rosalesekin batera elkartea sortu zuten. Miguel izan zen herriko lehen odola emilea. 1972an zortzi lagun ziren elkarteak; 1997an, aldiz, 850 bat. Erreportajearen Lasarte-Oria Gipuzkoako herrien artean, odol gehien ematen zuen herria zela azpimarratzen zen eta emileen ehuneko handia emakumeak zirela.
Xabin Urcelayk odolaren erabilera eta honen trataera azaltzen zuen. Era berean, herritarrek gonbidatzen zituen odola ematera.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Saridunen, musikarien, omenduen eta antolatzaileen talde argazkia.

Literatur Lehiaketak baditu saridunak

Irabazleek larunbatean jaso zuten euren saria

Literatur Lehiaketako sari banaketa larunbatean egin zuten Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan. Musika eskolako kideek poesia irabazleak errexitatu zituzten, gitarra klasikoaren laguntzaz. Bestalde, 29 urte hauetan parte hartu duten epaimahaiko kide izandako guztiak omendu dituzte.

Aurten ere arrakastatsua izan da Lasarte-Oriako Literatur Lehiaketa. Batez ere, haur eta gazteen sailari dagokionez, lehengo urtean baino 50 idazlan gehiago aurkeztu baitira.

Helduak

Euskarazko mikrokontakizunen A kategorian –1985 eta 1999 artean jaiotakoak– Amaia Iturriotz Urretxuarra izan da garaile, "Armiarma hilerria" obrari esker.

B kategoriari dagokionez –30 urtetik gorakoak–, Aitzpea Iribar getariarrak eta Idoia Garzes lasartearrak irabazi dituzte sariak. "Memoria" eta "Notak airean" idazlanak izan dira epaimahaiaren ustez

onenak.

"Biluztutako hiriaren Fantasia" idazlanarekin Gotzon Koldo Plaza bilbotarrak lortu du euskarazko poesia saria.

Alejandro Porras granadarraren "La Descarga" eta Jone Vazquez lasartearraren "¿Qué hay en la calle?" ipuinak izan dira onenak gaztelaniazko A kategoriako mikrokontakizunen artean. B sailean Sergio Martinezen "Palabras sin decir" lanak eraman du saria. Lasarteoriatarrik ez da egon atal honetan.

Poesia sariduna Bienvenida Garcia izan da "Colores de emociones" idazlanari esker. Emozioari ezin eutsiz, saria literatura maitatzea irakatsi ziotenei eskaini nahi izan zien.

Haur eta gazteak

A kategorian –2006 edo beranduago jaiotakoak– 1. saria Nikola Iraolak irabazi du "Aske Herria" ipuinarekin. Zuhaitz Garciaren "Igel Hegalaria"-k eta Saioa Elolaren "Planeta ordenatzen"-ek osatu dute sailkapena.

2003 eta 2005 artean jaio direnek 169 ipuin aurkeztu dituzte. Tasio Illaramendiren "Larri" lanak irabazi du. Ane Alberdi bigarren izan da "Altxor galduaren bila" ipuinari esker eta Sara Seguradoren "Papyrus Koaderno desagertua"-k eskuratu du hirugarren postua.

C kategoriari dagokionez, aurkeztutako 14 lanen artean Naroa Saizar izan da onena, bere "Errealitate? Ez eskerrik asko" saritu baitute epaimahaiko kideek. Olatz Bardaji eta Irati Urriza izan dira bigarren eta hirugarren, "Nire lagun Felipe" eta "Sorginarien ahalmenak" idazlanekin.

Haur eta gazteen poesia sariaren irabazleak honakoak izan dira: Nahia Rozas "Mai-

tasunaren gatibua" idazlanarekin eta Iris Aguirre Sanchez "La lluvia sonaba en el húmedo jardín" poemarekin.

Gaztelaniazko A kategorian Ane Garcia izan da garaile. Bigarren eta hirugarren, aldiz, Maddi Fernandez eta Saioa Elola izan dira hurrenez, hurren. 10 eta 12 urte artekoen saria Julene Iraolak eraman du, eta Enara Elvirak eta Dune Iriartek osatu dute podiuma. C kategorian, azkenik, Iris Aguirre, Itsaso Ariztimuño eta Nagore Irurieta izan dira saridunak.

Musika eta errexitaldiak

Poema irabazleak sari banaketa ekitaldian errexitatu dituzte. Horretarako Udal Musika Eskolaren laguntza izan dute.

Noemi Fernandezek irakurri ditu, eta Ivan Moreno ikasleak gitarra klasikoarekin lagundu.

Omenduentzako tartea

Ekitaldia hasi aurretik, kultura zinegotzi Maite Igleziasek

urteetan epaimahaiean lanean aritu direnak eskertu nahi izan ditu. Bereziki, aurtentzen epaile izateari utzi behar izan duen Carmen Perez, eta 2012an zendu zen Iñaki Beti. Lehenak eta bigarrenaren emazteak lore sorta eta oroi-garria jaso zuten Literatur Lehiaketaren izenean.

30. edizioa, gertu

Lasarte-Oriako Literatur Lehiaketa urteetan aurrera ari da egiten. Helduen kategorian 29. edizioa izan da aurtengoa, eta haur eta gazteena soilik urtebeteko gazteagoa da.

Aurtengo datuak eskainiz eman zion amaiera ekitaldiari alkate Jesus Maria Zaballosek. 518 idazlan haur eta gazteen kategorian, 203 mikrokontakizun eta helduen 49 lan. Azaldu duenez "harro" egoteko arrazoiak dira, eta herritar guztiak gonbidatu zituen 2016ko Literatur Lehiaketan parte hartzera.

Gloria Fuertesen poesia bat errexitatu zuen alkateak berak, azkenik.



Idoia Garzesek irabazi zuen Lasarte-Oriako euskarazko mikrokontakizunen sailean.



Noemi Fernandezek eta Ivan Morenok girotu zuten ekitaldia.